



**SAN GABRIEL ESKOLA
TUTORETZA PLANA**

1-JUSTIFIKAZIOA.

2-TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK:

- IKASTEN IKASTEKO GAITASUNA
- NORBERAREN AUTONOMIARAKO ETA EKIMENERAKO GAITASUNA.
- GIZA ETA ARTE-KULTURARAKO GAITASUNAK ETA GIZARTE ETA HIRITAR GAITASUNAK.

3- TUTOREAREN ESKU-HARTZE EREMUAK OINARRIZKO HEZKUNTZAN:

- IKASLEEKIN ZUZENEAN GARATU BEHARREKO EKINTZAK ETA DENBORALIZAZIOA.
- IRAKASLEEKIN GARATU BEHARREKO EKINTZAK ETA DENBORALIZAZIOA..
- IKASLEEN FAMILIEKIN ETA/EDO LEGEZ ARDURADUNEKIN ETA BESTE GIZARTE-ERAGILE BATZUEKIN GARATUTAKO EKINTZAK ETA DENBORALIZAZIOA..

4- LEHEN HEZKUNTZAKO TUTORETZAREN HELBURUAK

5-TUTORETZA-PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA

6- JARDUERAK MAILAKA

7- HAURREN EZAUGARRIAK ADINEN ARABERA.

TUTORETZA PLANA SAN GABRIEL HL-HI

1-JUSTIFIKAZIOA.

Ikastetxearen heziketa-proiektuaren barruan, tutoretza-plana da ikasleen eskolatzealdi osoan orientazio eta jarraipen ekintza guztiak antolatzeko egitura.

Oinarrizko gaitasunak lortzea da orientazio eta jarraipen ekintza horien helburua.

Tutoretza-lanaren helburua da, ikasleak bere burua ezagutu dezala eta onar dezala, sozializazio-prozesua hobe dezala, erabakitzen eta ikaskuntza-arazoak konpontzen ikas dezala, eta bere proiektu pertsonal eta profesionalaren protagonista senti dadila.

Tutore-taldeari dagokio tutoretza-plana egitea, orientatzaileak, aholkulariak eta/edo etaparen koordinatzaileak aholkatuta.

Horrez gain, tutoreari dagokio tutoretza-plana garatzea, irakasle-taldearekin elkarlanean eta talde-gelan eragina duten beste eragile batzuekin koordinatuta.

Tutoretza-planak, taldean, tutoretza-orduan garatu beharreko curriculumeko orientazio-edukiak antolatzen ditu. Horrez gain, tutorearen esku-hartzea sistematizatzen du, ikasleen banakako eta taldeko jarraipeneko hainbat eremutan, familiarekin izan beharreko harremanetan, eta irakasleekin eta kanpoko beste eragile batzuekin dagoen koordinazioan.

Bizitzan beharrezkoak diren gaitasun horiek eskuratzen laguntzeko ardura, irakasletalde osoarena da, baina, batez ere, tutorearena. Beraz, ikasketa-prozesuan eta bizitzaren garapenaren prozesuan ikasleari laguntzea da tutorearen zeregin nagusia. Oinarrizko gaitasun horiek lortzea da hezkuntza-helburua, eta helburu hori da prozesuaren gida.

Arlo tradizionaletan bezala, tutoretzan eta orientabidean ere ebaluazio-irizpideak identifikatu dira. Irizpide horiek gaitasunak eskuratzen doazela egiaztatzeko balioko diete ikasleei eta tutoreari.

2-TUTORETZATIK GARATU BEHARREKO GAITASUNAK.

Oinarrizko Hezkuntzako Curriculum (Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen den curriculum) ezartzen duen Dekretuan honela zehaztuta daude gaitasun horiek:

- a) Gaitasuna kultura zientifikoan, teknologikoan eta osasun-kulturan
- b) Ikasten ikasteko gaitasuna
- c) Matematika-gaitasuna
- d) Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna
- e) Gaitasun digitala eta informazioaren trataerarakoa
- f) Gizarte- eta hiritar-gaitasuna
- g) Giza eta arte-kulturarako gaitasuna
- h) Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna

Aurretik esan den bezala, tutoretzak berariaz landuko ditu gaitasun horietako batzuk.

Hauek nabarmentzen ditugu:

- Ikasten ikasteko gaitasuna: ikasten hasteko, eta gero eta eraginkorrago eta autonomoago ikasten jarraitzeko trebetasuna da, bakoitzaren helburuak eta beharrak kontuan hartuta. Norberak dakienaz eta ikasi behar duenaz jabetzea esan nahi du, ikasteko erak eta erabiltzen dituen baliabide eta estrategiak zein diren ohartzea. Bakoitzak bere ikasketa antolatu eta denbora eta informazioa kudeatu behar du. Ikasten ikasteko, norbere esperientziak aprobetxatzen jakin behar da funtsean, eta jarrera kritikoa hartu behar da, arazoak hautemateko eta konpontzeko moduaren arabera. Bakoitzak bere portaera aztertzeko, arazoen iturriak identifikatzeko eta behaketak aktiboki aprobetxatzen jakiteko gai izan behar du.
- Norberaren autonomiarako eta ekimenerako gaitasuna, sormenarekin, berrikuntzarekin, arriskuak hartzearekin eta proiektuen plangintza egiteko eta kudeatzeko trebetasunarekin lotuta dago. Ekintzaile izaten ikasteko gaitasunak irudikatzeko, gauzei ekiteko eta banakako edo taldeko ekintzak edo proiektuak sormenez, konfiantzaz eta arduraz garatzeko eta ebaluatzeko gai izatea eskatzen du, jarrera kritikoz, alde batetik norbere buruarekin, hobetzen joateko; eta testuinguruarekin, testuingurua ere hobetzeko. Egoerak aztertzeko, aukerak baloratzeko eta egokiena aukeratzeko ahalmena eskatzen du, egindako aukerarekin lan egiteko eta jarritako helburua lortzeko.
- Pertsona eta kultura arteko gaitasunek eta gizarte- eta hiritar-gaitasunek mota guztietako portaerak dituzte barruan. Gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta konstruktiboki parte hartzeko prestatzen dituzte ikasleak, batez ere, gero eta aniztasun handiagoa duten gizarteetan. Gatazkak gainditzeko eta/edo egoera arazotsuei aurre egiteko ere balio dute. Gizarte eta hiritar-gaitasunaren garapenaren gakoetako bat, elkarrekin bizitzen ikasteko erreferentzia-ardatzari lotuta dago, eta interes orokorreko egoerak sortzea da gako hori. Lankidetzak, gizarte-gaiei edo gai akademikoei buruzko eztabaida edo kritika eta bizikidetzak arauak eskatzen dituzte egoera horiek. Gelako kide guztiak aktiboki integratzea, eskolan dauden desberdintasunak onartzea eta taldean ikasle berriak sartzea gaitasun hori garatzen lagunduko duten gertaerak dira.

3-TUTOREAREN ESKU-HARTZE EREMUAK, OINARRIZKO HEZKUNTZAN

Tutoretza-planaren barruan jasota daude, tutoreak ikasketa eta hazkunde prozesuan, eta heldutasun pertsonaleko prozesuan, ikasleei jarraipena egiteko eta laguntzeko egiten dituen zereginak.

Tutorearen zeregin horiek guztiak ondo zehaztutako hiru jarduera-eremu hauetan garatzen dira:

3-1. ZUZENEAN IKASLEEKIN GARATU BEHARREKO EKINTZAK, BAI TALDEAN, BAI BANAKA ERE.

Tutoreak, ikasleen laguntzarekin eta jarraipenarekin lotura zuzena duen ekintza, garatzen du, bai banaka, bai taldean.

Lan guzti hori egiteko hurrengoak kontutan hartu behar izango ditu:

Ekintzak	Denboralizazioa
-Ikastetxean eta lagun-taldean ondo integratzen laguntzea, eta ikastetxeko jardueretan parte har dezatela bultzatzea.	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
Unerik larrienetan ikasleei aholkuak ematea.	Ikastetxe berrian sartzean, hezkuntza-ziklo edo etapa aldatzean.
Gelatik pasatzen diren irakasle guztien aurkezpena egiten du.	lehenengo astean,
Ziklo berriaren funtzionamendurako errutina eta arauak andereñoak/ maisuak azalduko ditu <ul style="list-style-type: none"> • Gelako errutinak eta arauak • Zikloko errutinak • Pasabideetakoak (sarrenak, irteerak, komunak...) • Jantokiko errutinak eta arauak • Autobusekoak. 	Zikloz pasatzean, lehenengo hilabetean.
Umearen ikaskuntza, hezkuntza eta heltze pertsonala garatzeko beharrezkoa den programaketa landuko da.	Astero egiten den tutoretza saioan
Ikasleen eskaerak, kezkak, kexak... bideratuko ditu.	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
Tutoreak familiek eginiko oharrak apuntatuko eta bideratuko ditu, gaixotasunak, alergiak...	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
Tutoreak umeen hutsegiteak ordenagailuko aplikazioaren bidez egingo du, absentismo parte delegaritzara bidaltzeko.	Hilabetero

3-2. IRAKASLEEKIN BANAKA ETA GELAKO IRAKASLE-TALDEAREN PARTE GISA GARATU BEHARREKO EKINTZAK.

Tutorea da irakasle-taldearen koordinatzailea; hau da, ikasle talde beraren hezkuntza jardunean eragina duten irakasle guztien ekintzen koordinazioaren arduraduna.

Ekintzak	Denboralizazioa
Aurreko tutoreekin bilera antolatuko du taldearen ezaugarriak ezagutzeko.	Kurtso hasieran

Umearen garapen prozesuan parte hartzen duten irakasle guztien koordinaketa egon behar da, eta tutorea izango da taldeko koordinatzailea.	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
Tutoretza-plana jakinaraztea, adostea eta garatzea, planetik sortzen diren jardueretan esku hartzera eta elkarlanean aritzera bultzatu, izango dira bere betebeharrak.	Kurtso hasieran
Irakasleen arteko batzarrak proposatuko ditu ikasleek izan ahal dituzten arazoei buruz hitz egiteko. Tutoreak bilera horien berri eman beharko dio ikasketa buruari, eta berak egingo du bilera horietarako deia.	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
ACIak eta errefortsu eta errekupeazio planak egingo ditu aholkularia eta pt-koen laguntzaz.	Iraila eta urrian
Laguntza gelako irakasleekin koordinatuko da.	Hamabostero
Berritzeguneko aholkulariarekin eta eskolako kontsultoreekin elkartuko da, heziketa bereziko umeak izanez gero.	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
Ebaluazio saioak koordinatuko ditu, informazioa jasoaz, gero, familiei txostenak emateko eta ziklo bukaerako erabakiak hartzeko;	Abenduan, martxoan eta ekainean.
Irakasle taldeko irakasle bakoitzarekin harreman estua izan hainbat egoeren berri emateko, bai ume bati bereziki dagokiona eta baita talde osoari dagokiona ere.	Kurtsoan zehar, beharrezkoa denean.
Gelako memoria egingo du plantila erabiliz.	Kurtso amaieran
Gelako ikasleen aktak eta beharrezkoak diren agiriak beteko ditu.	Kurtso amaieran
Etapamaieran, institutoko irakasleekin bilera bat izango da ikasleen ebaluazioaz informatzeko.	LH6. mailaren kurtso amaieran.

3-3. IKASLEEN FAMILIEKIN ETA/EDO LEGEZKO ARDURADUNEKIN ETA BESTE GIZARTE-ERAGILE BATZUEKIN GARATUTAKO EKINTZAK.

Gure ustez, funtsezko eremua da, ikasleei laguntza eta jarraipen egokia eman nahi bazaie. Ezinbestekoa da tutoreak hezkuntza arloko esku hartzearen koordinazioa egin dezala, ikasleen ikasketa eta orientazio prozesuan parte hartzen duten familiekin eta gizarte zerbitzuekin.

Eremu honetan, tutoreak zera egingo du:

Ekintzak	Denboralizazioa
Kurtso Familiekin batzartu, horretarako hain zuzen ere eginda dagoen gidoia jarraituz. Bilera honetan ikastetxearen eta hezkuntza-etaparen berri gurasoei emango zaie. Hasierako	Kurtso hasieran

kurtsoetan, batez ere, eskolako agendaren erabilera azaldu.	
Ikasle berrien familiekin batzartu eskola eta dinamika azaltzeko.	Kurtso hasieran
Eskola-jarduerekin lotutako gai guztiei buruzko informazioa eman ikasleei eta bere gurasoei, haiek irakasleengana edo ikastetxeko aginte-organoetara jotzeko duten eskubidearen kalterik gabe. Tutorearen asteroko bisitaren ordutegia jakinarazi beharko die ikastetxeak familiei.	Kurtso hasieran
Elkarrizketak egin eta baita egoerak hala eskatzen duen guztietan. Holan izatekotan gurasoentzako ordua asteazkenero 12,30etik 13,30etara izango da eta une honetan ezin ez bada beste bat bilatuko da.	Lehenengo eta hirugarren hiruhilabetean, beharrezkoa denean.
Koordinaketa eta jarraipen indibiduala guraso, gizarte serbitzu eta beste erakundeekin egiten diren batzarretan, ikasleekin egin behar den lanean, elkarrekin jokatzeko.	Iraila eta urrian
Familiei informatu haien seme-alabek izango duten laguntzari buruz eta haiekin egongo diren pertsonak aurkeztu.	Kurtso hasieran eta egoera sortzen denean
Informeen banaketa kurtsoan zehar hiru alditan egingo da, elkarrizketa pertsonala eginez lehenengoan eta azken informeeekin batera.	Abenduan eta ekainean.
Gurasoekin egiten diren batzar guztiak erregistratu, batzarraren arrazoia eta beste intereseko gauzak apuntatuz.	Kurtsoan zehar.

4- LEHEN HEZKUNTZAKO TUTORETZAREN HELBURUAK

Lehen zikloa	Bigarren zikloa	Hirugarren zikloa
1. Ikasleen pertsona-, familia-, ingurune eta eskola-ezaugarriak ezagutzea. 2. Ikastetxearekin ohitzea (ezagutzen ez badute). 3. Ikasleek ikasteko agertzen dituzten jarrerak, ezaugarriak eta estiloak pixkanaka eta	1. Ikasle bakoitzak alderdi fisiko, psikologiko eta pedagogikoei dagokienez maila pertsonalean, familian, eta gizarte eta ingurune mailan dituen ezaugarriak ezagutzea. 2. Ikasleengan aurreko zikloetan edo oraingoan agertutako jarreraren behaketa	1. Ikasle bakoitzaren gaitasunak (jarrerak eta trebetasunak) ezagutzea eta horiek garatzen laguntzea. 2. DBHra ahalik eta baldintzarik onenetan pasatzeko aukera ematea. 3. Ikasleengan xede errealak jartzeko eta lortzeko gai senti

<p>modu sistematikoan behatzea.</p> <p>4. Bakoitzaren ezaugarri guztien onarpena bultzatzea, eta taldeko ikasle guztien integrazioa erraztea.</p> <p>5. Gorputza ezagutarazi eta balioestea, eta zentzumenen ezberdintasunak, funtzioak eta erabilerak aztertzea.</p> <p>6. Jarrerak moldatzearen bitartez balioak garatzea, eta lankidetzak, elkarrekiko laguntza eta besteekiko errespetua sustatzea.</p> <p>7. Autonomia eta autozaintza ohiturak sustatzea.</p> <p>8. Familiekiko harremanak bultzatzea.</p> <p>9. Egungo zein etorkizuneko egokitzapen pertsonal, sozial eta akademikoa erraztuko duen Gizarte Trebetasun eta Autoestimuko programa bat garatzeko aukera ematea.</p> <p>10. Ikasgelan inplikaturako irakasleekin koordinatzea.</p>	<p>sistematikoarekin jarraitzea.</p> <p>3. Gainerakoek bakoitzaren ezaugarriak onar ditzaten bultzatzea, eta taldeko integrazioa erraztu eta bideratzea.</p> <p>4. Ikasleei beren gorputzean gertatzen ari diren aldaketa morfologikoak eta funtzionalak ezagutaraztea.</p> <p>5. Gizarteko sexu-rolen azterketaren bidez, estereotiporik gabeko sexu eta genero nortasuna barneratzen laguntzea.</p> <p>6. Ikasleari autokontrol pertsonalerako prozesua irakastea.</p> <p>7. Elkarrizketaren bidez, besteen eta beren ikuspuntuak balioesten irakastea erabakiak hartzeko eta gatazkak konpontzeko.</p> <p>8. Esperimentazio- eta sormen-jarduerak, eta pentsatzen eta ikasten ikasteko teknikak bultzatzea eta, horrela, autonomia handiagoa sustatzea.</p> <p>9. Familiekiko harremanak sustatzea.</p> <p>10. Egungo zein etorkizuneko egokitzapen pertsonal, sozial eta akademikoa erraztuko duen Gizarte Trebetasun eta Autoestimuko programa bat garatzeko aukera ematea.</p> <p>11. Ikasgelan inplikaturako irakasleekin koordinatzea.</p>	<p>daitezten jarrerak garatzea.</p> <p>4. Ikasleei beren gorputzean gertatzen ari diren aldaketa morfologikoei eta funtzionalei buruzko informazioa sakontzen laguntzea.</p> <p>5. Gizarteko sexu-rolen azterketaren bidez, estereotiporik gabeko sexu eta genero nortasuna barneratzen laguntzea.</p> <p>6. Elkarrizketa gatazkak konpontzeko eta erabakiak hartzeko tresna gisa erabiltzea.</p> <p>7. Haien gizarte-errealitatea ezagutaraztea eta kritika konstruktiboa sustatzea.</p> <p>8. Esperimentazio- eta sormen-jarduerak, eta pentsatzen eta ikasten ikasteko teknikak bultzatzea eta, horrela, autonomia handiagoa sustatzea.</p> <p>9. Familiekiko harremanak sustatzea.</p> <p>10. Egungo zein etorkizuneko egokitzapen pertsonal, sozial eta akademikoa erraztuko duen Gizarte Trebetasun eta Autoestimuko programa bat garatzeko aukera ematea.</p> <p>11. Ikasgelan inplikaturako irakasleekin koordinatzea.</p>
---	--	--

5-TUTORETZA-PLANAREN EBALUAZIOA

JARRAIPENA

ETA

Ikasturtean zehar, maila bakoitzeko tutore-taldeak tutoretza-planaren garapenaren jarraipena egingo du.

Ikasturtea amaitzean, tutoretza-planaren ebaluazioa egingo dute, eta baita planaren garapenari buruzko amaierako memoria ere. Memorian tutoreek idatziko dute, ikasleek eta lankide diren beste eragileek egindako behaketen laburpena, ondo atera diren alderdiak, sortutako zailtasunak eta aldatu beharko diren alderdiak.

Ebaluaziotik ateratzen dituzten ondorioak kontuan hartuko dituzte, hurrengo ikasturtean egin beharreko aldaketak eta egokitzapenak egiteko.

Tutoretza-planaren ebaluazioa egiteko, irizpide hauek erabil daitezke, besteak beste:

- Zer gaitasun-maila eskuratu duten, ezarritako ebaluazio-irizpideen arabera.
- Edukien garrantzia
- Jardueren egokitasuna, gaitasunak eskuratzeko
- Jarduera-eremuetan aurrera eramandako ekintzen egokitasuna
- Ikasle-taldearen eta familien parte hartzea.

6- JARDUERAK MAILAKA

---KURTZO GUZTIETAN AGERTZEN DIREN SAIOEN EDO JARDUEREN IZENAK JARDUERAZ ANTOLATUTA						
JARDUERA GUNEAK	<u>1. MAILA</u>	<u>2. MAILA</u>	<u>3. MAILA</u>	<u>4. MAILA</u>	<u>5. MAILA</u>	<u>6. MAILA</u>
I.-Ikasleen harrera eta integrazioa	1.1.Izen musikala 1.2.Izen positiboa 2.1.Ikaskide berria daukagu 2.2.Ikastetxea ezagutzen dugu 3.1.Honelakoa naiz ni	1.1. Izen metatzaileak 1.2. Ikaskide berria daukagu 2.1. Nire zaletasunak 3.1. Honelakoa naiz ni	1.1. Gure burua aurkezten dugu 1.2. Ikaskide berria daukagu 2.1.Berezia naiz/ezberdina naiz 4.1. Ezagutzen gara	1.1. Ezagutu ditzagun gure ikaskideak 1.2. Ikaskide berria daukagu 2.1. Aurkezpenak 3.1. Gustatzen zait – ez zait gustatzen	1.1. Bisita-txartela 1.2. Ikaskide berria daukagu 2.1. Egun batean 3.1. Nire burua balioesten dut	1.1. Nire laguna eta ni 2.1. Bikoteka 3.1. Zuhaitza 19.1. Zer da DBH? 20.1. DBHri buruzko hitzaldi batera goaz
II.-Gela/taldearen antolamendua eta funtzionamendua	4.1.Makinariaren lana 5.1.Taldeka lan egiten dugu 6.1.Taldeka hitz egiten ikasten dugu 7.1.Joko araudunak 9.1.Taldeko lema daukagu 10.1.Soziograma 11.1. Konparti dezagun 12.1. Elkarrekin jolasten gara	4.1. Makinariaren lana 6.1. Taldeka hitz egiten ikasten dugu 7.1. Arauak egiten ditugu 8.1. Taldeko lema daukagu 9.1. Soziograma 10.1. Ikastorduko orri horiak	5.1. Lanen arduradunak aukeratzen ditugu 6.1. Arauak egiten ditugu 8.1. Taldeko lema daukagu 9.1. Taldeka hitz egiten ikasten dugu 10.1. Soziograma 11.1. Konparti dezagun	4.1. Lanen arduradunak aukeratzen ditugu 5.1. Arauak egiten ditugu 8.1. Taldeko lema daukagu 8.2. Lagunak 9.1. Taldean hitz egiteko arauak 9.2. Elkarriketan dihardugu 12.1. Soziograma	4.1. Lanen arduradunak aukeratzen ditugu 5.1. Arauak egiten ditugu. 7.1. Taldeko lema daukagu 14.1. Soziograma	5.1. Taldea antolatzen da 6.1. Lanen arduradunak aukeratzen ditugu 7.1. Nire eskubideak eta nire betebeharrak 8.1. Arauak egiten ditugu 14.1. Soziograma 15.1. Laukien jokoa
III.-Lan-ohiturak eta norberaren zaintzari lotutakoak eskuratzea eta hobetzea.	31.1. Nire gorputza zaintzen dut	15.1. Osasun-ohitura onak	7.1. Agenda eta etxeko lanak 21.1. Ohitura onak	6.1. Agenda eta etxerako lanak 7.1. Gure astialdia antolatzen dugu 32.1. Zaindu zure burua	6.1. Agenda eta etxeko lanak 8.1. Gure astialdia antolatzen dugu	9.1. Nolako ikaslea naiz? 10.1. Oroimena 12.1. Nola irakurtzen dut? 12.2. Gure astialdia antolatzen dugu (1. zatia)

						13.1. Gure astialdia antolatzen dugu (2. zatia)
IV.-Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitapena: AUTOESTIMUA	8.1. Garrantzitsua zara 13.1. Arduratsua naiz 15.1. Nire familia 23.1. Kilimusiak 24.1. Armiarma-sarea 35.1. Nola dago nire sormena? 37.1. Izarra	5.1. Zoriontsua naiz/ Triste nago 11.1. Arduratsua naiz 12.1. Nolakoa naiz? 14.1. Itxura ona sentitzen naiz? 17.1. Nola politak pentsatzen ditut! 22.1. Nire familia 24.1. Irudimentsua naiz 36.1. Izarra	3.1. Nire gogoko indargarriak 12.1. Ni naiz 15.1. Maitegrama 25.1. Kilimusiak egiten ditugu 26.1. Garrantzitsua zara 34.1. Gure familia 37.1. Asmatzen dugu 39.1. Izarra	13.1. Nire gogoko indargarriak 16.1. Maitegrama 19.1. Gure pentsamenduak 20.1. Nolakoa da nire autokontzeptua? 25.1. Zoriontsu izaten ikasi 43.1. Izarra	16.1. Maitegrama 20.1. Besteak indartzen ditugu 36.1. Nire familia eta ni 37.1. Telebista ikusten ikasten dugu (1. zatia) 38.1. Telebista ikusten ikasten dugu (2. zatia) 40.1. Izeia	4.1. Autokontrolaren fitxa 18.1. Maitegrama 22.1. Ni ez naiz bikaina, eta zer? 23.1. Istorio zoriontsua 25.1. Nire autobiografia (0-2 urte) 26.1. Nire autobiografia (2-10 urte) 27.1. Nire autobiografia (10-12 urte) 28.1. Nire autobiografia (Nire etorkizuna) 41.1. Ipurtargi txikia

<p>IV.-Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena: GIZA TREBETASUNAK</p>	<p>14.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 16.1. Maitasuna adierazten dugu 17.1. Pertsonetikiko sentimenduak 18.1. Haserretzeko eskubidea dugu 18.1. Irribarrearen adierazpena 20.1. Elkarri begiratzen diogu hitz egiterakoan 21.1. Agurren horma-irudia 22.1. Gauzak eskatzen ditugu 32.1. Emozioak</p>	<p>13.1. Otsoa, Eittoa eta Ni Jauna 16.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 19.1. Nola izan naiteke atsegina? 20.1. Akatsak 21.1. Nire lagunak 23.1. Asertiboa izaten ikasten dut</p>	<p>13.1. Kritiken aurrean erantzun 14.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 17.1. Irribarrea 18.1. Begirada 19.1. Agur mota batzuk 20.1. Mesedez 22.1. Pentsamendu negatiboak kanpora! 35.1. Besteen egoeran jarri 36.1. Gure akatsak</p>	<p>10.1. Hitz egiten ikasten dugu (1. zatia) 11.1. Hitz egiten ikasten dugu (2 zatia) 14.1. Pentsamendu negatiboak kanpora! 17.1. Kritiken aurrean erantzun 18.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 21.1. Lankidetzan aritzen gara 22.1. Kexatzen ikasten 23.1. Zergatik galdetzen ikasi 24.1. Gure emozioak eta sentimenduak adierazten 26.1. Oker joka dezaket 33.1. Nire zuhaitz genealogikoa</p>	<p>9.1. Nire gogoko indargarriak 10.1. Kritiken aurrean erantzun 11.1. Berdinen arteko tratu txarrak 12.1. Jon Anderren kasua 13.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 35.1. Antzinako jokoak berreskuratzen ditugu 17.1. Besteei irribarre egiten diegu 18.1. Nora doa begirada? 18.2. Agurrari buruz hitz egiten dugu 19.1. Mesedeak eskatzen ditugu 21.1. Konparti dezagun 22.1. Sentimenduak adierazten 23.1. Asertibitatea 24.1. Amets gidatua</p>	<p>16.1. Albaren arazoa 17.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 21.1. Kritiken aurrean erantzun 24.1. Ezetz esaten ikasten 40.1. Tutoretza balioesten dugu</p>
<p>IV.-Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena: HEZIKIDETZA</p>	<p>25.1. Jostailuak 26.1. Nori dagokio? 27.1. Lanak aurkitzen ditugu</p>	<p>25.1. Jostailuak 26.1. Gauzek ez dute sexurik 27.1. Amaren eta aitaren lanak</p>	<p>23.1. Martxoaren 8a 23.2. Nork zer egiten du? 24.1. "Mari Joseri zergatik deitzen diote Joxe Mari?" ipuina</p>	<p>28.1. Martxoaren 8a 28.2. Enigmak 29.1. Emakumezkoen ala gizonezkoen lanak 30.1. Nire jolasak 31.1. Ipuinak alderantziz</p>	<p>25.1. Martxoaren 8a 25.2. Hitzekin jolasean 26.1. Mundua alderantziz 27.1. Jolas-garaian</p>	<p>29.1. Martxoaren 8a 29.2. Emakumeak historian</p>

				34.1. Laguntzen dut etxean		
IV.-Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena: HEZKUNTZA SEXUALA	28.1. Nire gorputza ezagutzen dut 29.1. Neskak eta mutilak: elkarren arteko ezberdintasunak 30.1. Gure gorputza 30.2. Hitzak saltoka	28.1. Nire gorputza ezagutzen dut 29.1. Neskaren eta mutilaren gorputza 30.2. Letra-zopa 31.1. Animalien jatorria 32.1. Gure jatorria 33.1. Haurtxoaren zaintza	28.1. Zer dakigu haurdunaldiari eta erditzeari buruz? 29.1. Iñigoren istorioa 30.1. Gurasoei galdezka 31.1. Gorputz-adierazpena 32.1. Gure sexu-organoak ezagutzen 32.2. Letra-zopa 33.1. "Haurdunaldia eta erditzea" (bideoa)	35.1. Masajea 36.1. Gure gorputza (bideoa) 37.1. Gorputz izenak birpasatzen 38.1. Ernalketa naturalaren prozesua 39.1. Ernalketa artifiziala eta adopzioa 40.1. Kanpotarren aurrean, zer egin? 41.1. Ezetz esaten ikasten	29.1. Zuloen jokoa 30.1. Pubertaroko aldaketak 31.1. Pubertaroari buruzko bideoa 32.1. Zer dakigu? 33.1. Antisorgailuak 34.1. Antisorgailuak (2. zatia)	31.1. Nola erlaxatu ikasten dugu 32.1. Zer da amodioa egitea? 33.1. Zer da sexualitatea? 34.1. Erruleta miragarria 34.2. Hitz politak ikasten 35.1. Sexualitatearen bilakaera 36.1. "Ternura se escribe con h" (bideoa) 37.1. Hilekoa 38.1. Gaueko poluzioak
IV.-Pertsona, eskola eta gizarte mailako garapena eta egokitzapena: ERABAKIAK HARTZEN	33.1. Erabakiak hartzen ikasten dugu 34.1. Oker joka dezaket 36.1. Tutoretza balioesten dugu	34.1. Erabakiak hartzen ditut 35.1. Tutoretza balioesten dugu	16.1/27.1/38.1. Tutoretza balioesten dugu	42.1. Gure jarrerak kontrolatzen ikasten dugu 15.1/27.1/42.1 Tutoretza balioesten dugu.	15.1/28.1/39.1. Tutoretza balioesten dugu	11.1/30.1/40.1 Tutoretza balioesten dugu
V.-Familien parte-hartzea	<ul style="list-style-type: none"> • Umeen adin guztien ezaugarriak (2. atalean, maila guztietan) • Familiekiko harremanak (3. atalean): 1. mailako gurasoentzako galde sorta, gurasoekiko elkarrizketa, beste laguntza mota batzuk. 					
VI.-Ebaluazioaren prozesua eta prozesuaren ebaluazioa	<ul style="list-style-type: none"> • Umeekin egiten dugun ekintza "Tutoretza balioesten dugu" • Irakasleen arteko koordinazioa (3. atalean): ikastaldeko dinamika hobetzeko proposamenak, irakasleen artean taldearen funtzionamendua ebaluatzeko dokumentua, irakaskuntzan eragina duten faktoreak. • Bibliografia 					

7- HAURREN EZAUGARRIAK ADINEN ARABERA.

6 URTEKO HAURREN EZAUGARRIAK (1. MAILA)

Komeni da, gaingiroki bada ere, 6 urteko haurren zenbait alderdi gogoratzea: zer nahi duen, nolako portaera duen...

Adin honetan hasten da Lehen Hezkuntza.

Bilakaera psikologikoaren ikuspuntutik, Piaget-ek dioenez, 6 urteko haurrek hitzezko adimenaren etapan murgilduta jarraitzen du, intuiziozkoa deritzon pentsaeraren barruan.

Wallon-en arabera, pertsonalismoaren aldia amaitzen da 6 urteko adinean.

Psikoanalisiak adin honetan kokatzen du latentzia-aldia.

Eta, azkenik, arrazoibidea zehatza da adin honetan, jakina, eta pentsaera pertzepzioari lotuta dago. Hori dela eta, haurra ez da pentsamendu abstraktuak egiteko gai.

Adin honetan, haurrek gauza guztiekiko interes handia eta gogo bizia agertzen dute. Horregatik, komeni da haien jakin-minari eta bilakatzeko eta hazteko ahalmen handiari behin eta berriz erantzutea.

Eta honetan funtsezkoa da ohiturak sortzea, jarrerak bultzatzea eta bai interesari erantzutea, ikas dezaten.

Afektibitatearen ikuspuntutik, adin honetako haurrek afektua behar du eta, aldi berean, afektua erakusten du. Afektibitate-gabeziaren ondorioz, haurrek bilakatzeko zailtasun larriak izan ditzakete, eta tristeak, oldarkorak, uzkurak edo dohakabeak izan daitezke.

Kontuan izan behar dugu 6 urteko haurrek, gurasoekiko eta hezitzaileekiko harreman dinamikoan, horien hitzak era subjektibo samarrean eta, zenbaitetan, hitzez hitz interpretatzen dituela. Hortaz, aitak edo amak haurren hutsegite bat dela-eta "Tentela da ume hau" esaten badu, ezintasun-sentimenduak eta minusbalotasun-bizipenak sor ditzake horrek haurrenengan (aldez aurretik horretarako joerarik izanez gero).

Psikomotrizitatearen ikuspuntutik, haurrek jolastu egin behar du lehenik eta behin. Halaber, argi eta garbi dago muskulu-trebetasunak lantzea adimen-ahalmenak garatzea bezain garrantzitsua dela.

Harremanen ikuspuntutik, adin honetako haurrek galdetu egiten du, kontsultak egiten ditu, harremanak egiten ditu..., eta guk jarrera horiek bultzatu behar ditugu. Horretarako, benetako komunikazioa ezarri behar dugu haurrekin, eta haren gauzekiko interesa azaldu behar dugu, haren interesen alde egin behar dugu eta abar.

Haurrak ez du atalka funtzionatzen, osotasun gisa baizik.

Haurraren autoestimua eta bere buruarekiko segurtasuna indartzen saiatu behar dugu. Adin honetan, haurrak gurasoen iritzietan begiratzen dio bere buruari (eta, batez ere, amaren edo aitaren iritzietan). 6 urteko haur bati azkarra, ona eta trebea dela adierazten badiogu, bere benetako gaitasun guztiak agertuko ditu emaitzetan. Aitzitik, gure hezkuntza-jarrera kritikoa, zorrotza eta zentsuratzaila bada (hutsegiteak nabarmentzen baditugu eta laudorioetan motz geratzen bagara), beti zalantzan egongo diren eta gero eta gauzaezago agertuko diren haur baldarrak, segurtasunik gabeak eta grinatsuak egingo ditugu.

Beldur funsgabeak saihestu egin behar dira; izan ere, adin honetan haurrak oso sentiberak dira eta 3 urterekin baino gaueko beldur larriagoak izan ditzakete, adin horrekin ez baitzuten "hainbeste pentsatzen".

Haurrak esfinterrak kontrolatu behar ditu adin honetan. Horrela, beraz, gauero edo gau askotan ohean pixa egiten badu, "enuresi" izeneko arazoa du, eta pediatarrengana joan beharra dago. Beste kontu bat da haurrak noizean behin gainean pixa egiten badu, tentsio edo urduritasun handiko uneetan bereziki; hori normala da, ez dago enuresirik.

Arazo pertsonalen adierazgarri izan daitezkeen beste sintoma batzuen artean, honako hauek aipa daitezke: barnerakoitasun handia, era guztietako tentsio-sindromeak, arazoak otorduetan, tikak eta hipermugikortasuna (gehiegizko mugimendua), gezurretan ibiltzea edo sarritan lapurtzea, tristura, jarrera oldarkorra, itxurazko afektibitate-errepresioa...

Oro har, 6 urteko adina ez da bereziki zaila; normalean, haurra kezkarik gabe, maitekor eta komunikatibo egon ohi da.

Sozializazio-prozesua areagotu egiten da. Haurrek, egunetik egunera, gauzak hobeto konpartitzen ikasten dute eta galtzen ikasten hasten dira, nekez eta gutxitan bada ere.

Horrela, beraz, 6 urteko haurra oso malgua da oraindik, eta ematen zaion heziketak garrantzi handia izango du ondorengo bilakaeran.

7 URTEKO HAURRAREN EZAUGARRIAK (2. MAILA)

Bilakaera psikologikoaren ikuspuntutik,

Begirada bizkor batean, badirudi lehen mailan dagoen 6 urteko haurraren eta bigarren mailan dagoen 7 urteko haurraren artean ez dagoela ezberdintasun handirik, baina hori ez da horrela. Ezberdintasunak nabarmen samarrak dira, adimenak izaten duen bilakaeratik hasita. 7 urtetik 11ra bitarteko aldi gertatzen dira Piaget-ek "eragiketa zehatz" deitutakoak, eta 7 urterekin hasten da bigarren fasea deitzen zaiona. Aurreko etapako haurraren pertzepzioa eta intuizioa zen nagusi; 7 urteko haurrak, aldiz, esperientzia zehatzetan (ikus eta uki daitezkeen gauzetan) oinarritutako logikarekin jokutzen du. Pentsamendu

abstraktutik oso urrun dago oraindik, baina haren arrazoibidea logikoa dela esan dezakegu. Adibidez, objektuen transformazioak ulertzeko gai da, eta jarduerak adimen mailan barneratzen hasten da, oraindik arazo gehienak "saiakuntza eta errorearen" metodoaren bidez konpontzen baditu ere. 7 urteko haurren ezaugarri garrantzitsu bat jakin-min handia da. Lehen "zer?" eta, ondoren, "nongoa?" galdetzen zuen. 7 urterekin, ordea, ez da nahikoa, pentsaera asoziatiboak pentsaera sinkretikoa ordezkatu baitu. Haurrak "Zerez egina dago?", "Nola egiten dira?", "Nola funtzionatzen dute?" eta "Gauza bat egitean, zergatik gertatzen da beste bat?" galdetzen du.

Haurrak oso modu zehatzean ulertu behar ditu gauzak. Egiten duenaren eta bizitzen duenaren bidez ikasten du, eta irakasleak oso kontuan izan behar du hori. Irakasleak, modu batean edo bestean, ikastaldean lantzen ari diren gaia haurraren munduarekin lotzen saiatu beharko du irakasteko.

7 urteko haurra kalkuluaren hastapenak ulertzeko gai da. Badaki 4 gozoki baditu eta beste bi gehiago ematen badizkiote 6 izango dituela, edo zituen 3 txikleetatik bat ematen badu bi geratuko zaizkiola; badaki, halaber, laurden bat zer den, eta ulertzen du gauza simetriko bat bitan zatituz gero ez direla bi zati lortzen, besterik gabe, bi zati berdin baizik.

Oso kontuan izan behar dugu oroimena oso indartsu agertzen dela adin honetan. Oinarrizko teknika hori oso garrantzitsua da, Lehen Hezkuntzako 1. etapan batez ere. Hala ere, bi ahoko arma bihur daiteke; izan ere, ongi erabiltzen ez bada, laguntza izan ordez adimenaren ordezko bihur daiteke. Eta guk irakatsi behar diegu oroimena behar bezala erabiltzen.

Edonola ere, gauzak modu zehatzean ulertu behar izateaz gain, era ordenatu batean ulertu behar ditu, bere mundua egituratzea ere behar duen bezalaxe. Horren adierazgarri dugu haurrak gauzak ordenatzeko, zerrendak egiteko eta, batez ere, objektuen bildumak egiten hasteko agertzen duen beharra (oraindik kantitateari kalitateari baino garrantzi handiagoa ematen badio ere).

Erraz egiazta daitekeenez, Lehen Hezkuntzako bigarren mailako eskolak Haur Hezkuntzakoak (horietan mugikortasuna etengabea da) eta Lehen Hezkuntzako lehen mailakoak baino lasaiagoak dira. Bigarren mailako ikasleak, lasai eta jakin-minez, gogo handia jartzen du egiten duen guztian. Hala ere, ez dugu ahaztu behar haurraren arretak (adin honetan askotan borondatezkoa da) ez duela luzaroan irauterik. Hori dela eta, beren gaitasunei egokitutako zeregin laburrak egin behar dituzte hurrek. Izan ere, adin honetan ondo geratzea gustatzen zaie, eta zerbait egin ezin badute, oso larri sentitzen dira.

Beste aldaketa garrantzitsu bat jokoan gertatzen da. Bat-batekoa eta mugimendu handikoa da oraindik ere, baina gero eta nabariagoa den soziabilitateak bultzatuta, haurra taldean jolasten saiatzen da, eta joko-arauak errespetatzen hasten da, berak sortutakoak nahiago baditu ere. Lagunak eta taldea garrantzitsuak dira jada. Izan ere, adimen-egituretan gertatu den eraldaketaren eraginez, haurrak onar dezake pertsona bera eta bakarra izan arren, beste haurren antzekoa dela.

Taldearekiko zaletasunaz gain, taldearekiko leialtasuna hasten da.

Jokoetan, neskak eta mutilak bereizten hasten dira, edo, behintzat, orain taldean ez dute lehen bezain erraz onartzen beste sexuko ikaskide bat.

Familia-alderdiari dagokionez, azpimarratu beharra dago haurra pixkanaka amarengandik bereizten hasten dela. Etxean haur lasaia izan ohi da eta, anai-arreba zaharragoekin gatazkak baditu ere, horiek miretsi eta errespetatu egiten ditu. Anaiarreba txikirik izanez gero, zaindu eta babestu egiten du, nahiz eta, noizean behin, jeloskor jarri eta beste jarrera bat agertzen duen. Aitarenganako hurbiltze nabarmena gertatzen da (izugarri errespetatzen eta miresten du).

Adin honetan, haurra oraindik ideia etikoak osatzen eta antolatzen ari bada ere, kontzientzia morala agertzen hasten da.

Oro har, haurrak badaki iruzur egitea, gezurrak esatea, lapurtzea eta abar "gauza txarrak" direla, baina kontu handiz

interpretatu behar dugu hori, gure heldu-adimena alde batera utzita. Izan ere, baliteke guk lapurreta txikitzat hartzen duguna haurrarentzat handia izatea (jabetzaren zentzua nahasia eta berria baitu), edota guretzat gezur nabarmena dena harentzat fantasia hutsa izatea. Kontuan izan behar dugu fantasia oso garatuta dagoela etapa honetan eta, erreala eta fantastikoa

bereizteko gai bada ere, haurra bere fantasietan murgiltzen da eta, hainbeste atsegin dituen gero, sinistu nahi izaten ditu.

Gainera, ez dugu ahaztu behar haurraren jokabidea ez dela haren prestakuntza moral ahulean oinarritzen, jasotzen dituen zigorretan edo errietetan baizik: "zigortu egin naute; beraz, txarra da hori", "ez naute zigortu; beraz, ez da txarra". Hala eta guztiz ere, bere kontzientzian moral txikia (edo "zentzua") hasi da funtzionatzen.

Ezin dugu ahaztuta utzi hain funtsezkoa den hizkuntza, eragin handia baitu adimenaren garapenean (eta alderantziz). 7 urteko haurrak oso ongi ahoska ditzake bere hizkuntzako hitz guztiak, eta esaldi gramatikalki zuzenak osa ditzake. Eta hori, psikologoek eta orientatzaileek ez ezik, irakasleek ere kontuan hartu behar dute, eta horiek batez ere, etengabe baitaude

harremanetan haurrekin. Hizkuntza-gabeziek irakurketan, idazketan, kalkuluan eta, batez ere, adimenaren garapenean ondorio larriak izan ditzaketenez gero, adi egon behar dugu arazo hau atzemateko eta irtenbide bat emateko (garaiz gauden bitartean, bederen).

8 URTEKO HAURRAREN EZAUGARRIAK (3. MAILA)

«Hedapen-etapa» deitzen dio *Gesell*-ek 8 urteko adinari. Adin honetan, haurrak Lehen Hezkuntzako 3. mailan daude eta, gure ustez, *Gesellek* emandako izena oso egokia da, hedakortasun eta kanporakotasun hori adin honetako haurren ezaugarri bereizgarria baita (nortasunari zein egiten dituzten gauzei dagokienez).

Haurraren oroitzapenak metatzen hasten dira, eta pertzepzioaren bidez jasotzen dituen irudiak finkatu egiten dira. Ondorioz, munduaren ikuskera errealistago batera, nolabaiteko adimen-objektibotasun batera iristen da haurra.

Ikasturte honetan, beraz, intuizio-ezagutzatik dedukzio-ezagutzarako urratsa ematen has daiteke haurra, gaingiroki bada ere. Edonola ere, haurrak adimen-abentura hasteko oinarria badu bere egitura mentalean; inguruko mundutik zenbait ondorio ateratzeko gauza da.

Piagetek adimenaren bilakaeraren inguruan egindako azterlanei jarraiki, 8 urteko haurrak 7 urteko adinarekin hasitako «eragiketa zehatzen» aldian jarraitzen du oraindik (berezko «eragiketa zehatzen» bigarren etapan). Eraldatze-prozesua egiteko gaitasunaren, itzulgarritasunaren, deszentrazioaren eta jarduerak buruan barneratzeko gaitasunaren introiekzioa osatuagoa da haurraren.

6 urte egin arte modu sinkretikoan hautematen zuen eta kaos handia iruditzen zitzaion kanpoko mundua antolatzen hasi zen haurra 7 urterekin. 8 urterekin, aldiz, bere ingurunea antolatuta dagoela sentitzen du haurrak; ondorioak, testuinguruak eta sekuentziak ikusten hasten da, ezagutzak landu eta objektibizatu egiten ditu, ulertzeko ahalmen handiagoa du eta munduaren jarraitutasuna susmatzen du. Horrek bere burua besteak bezalako izaki gisa ikusten laguntzen dio eta, *Gesellek* dioen bezala, 8 urteko haurra bere inguruneaz gozaten eta bertan parte hartzen ikus dezakegu.

Haurraren intimitatea zabalagoa da orain; bere bizipenekin osatzeaz gain, besteen ekarpenekin aberastu du.

Agian, orain arte adierazitako guztia da haurrak parte hartzeko erakusten duen gogo biziaren jatorria. Gainera, jakin-mina lehen baino handiagoa denez gero, eta ezagutzak eskolan eskuratzen dituenek gero, eskolako mundua jardueren alderdi garrantzitsuena da adin honetan; gainerako guztia eskolaren jarraipen bihurtzen da. Ikastaldean gogo biziz hartzen du parte, arbelera irtetea gustatzen zaio, besteei egindako galderei erantzun nahi izaten die, eta egiten duen edozein gauzari besteek oniritzia berehala eman diezaioten nahi du. Gauza asko egin nahi izaten ditu, eta presaka, itsumustuan egiten ditu. Gainera, agintzen diotena egin ordez, gustatzen zaiona aukeratzeko joera izaten du. Ikasteko gogo eta grina hori dela eta, ikastaldean lantzen diren gai gehienak onartzen ditu, bai eta errepikatzen jakin ere (eta oso ongi askotan), baina ez dugu pentsatu behar ezagutza horiek benetan barneratu dituenik.

Horrekin guztiarekin, ondorio garrantzitsu batzuk atera ditzakegu, haurraren etorkizuneko ibilbiderako batez ere. Gauza askoren kontzeptuak garbi atzemateko gai da haurra 8 urterekin, eta esaten diren gauzetan eta irakurtzen den horretan pentsatzen, gauzak zalantzan jartzen eta zalantza horiek argitzen erakutsi behar zaio; hau da, kontzeptuak testuinguru egokian erabiltzen eta kontzeptu horiek azaletik aztertzeko ohitura saihesten jakin behar du.

Haurrarentzat irakaslea helduen munduko irudirik garrantzitsuena dela ziurta dezakegu ia. Beraz, irakaslearekin harreman atsegina lortzea oso lagungarria izan daiteke eskolatze-prozesua garatzeko. Haurrak etxeko zereginetan zein ikasketetan laguntza jasotzen badu, kontuan izan behar dugu beti laguntza norabide edo orientazio gisa ulertu behar dugula; izan ere, adin honetatik aurrera, haurra "heldu" sentitzen da eta bere kontura, inork begiratu gabe lan egitea gustatzen zaio. Ildo horretan, eskolako zereginak haurrarekin egiteak haren eskola-bilakaerari kalte egiten diola adierazi nahi dugu. Ekimena eta erantzukizun-zentzua kentzen diogu eta, aldi berean, kontzeptuak barneratzea eragozten diogu, eta arestian aipatu ditugun ikasteko ohiturak oztokatzen dituen azaleko ikaskuntza hori sustatzen dugu.

Familia-eremuari dagokionez, haurraren portaera ez da 7 urterekin bezain ona. Gurasoekin eta anai-arrebekin zakarra izan ohi da, eta haserrealdiak izan ohi ditu maiz. Etxetik eta familia-girotik kanpo, ordea, askoz portaera hobea du.

Nolanahi ere, haurrak gurasoen beharra eta norbaitengan konfiantza izateko beharra du oraindik ere (amarengan gehienetan). Bere harreman-munduarekin arazoren bat duenean (irakaslearekin, ikaskideekin edo lagunekin), babestuta sentitzen da gurasoak jakinaren gainean badaude. Hala ere, atsekabetu egiten da gurasoek gatazkan zuzenean esku hartzen dutela ikusten badu.

Helduak miretsi egiten ditu, baina uzkur samar agertzen da haien aurrean; izan ere, barregarri geratzeko beldurra nabarmen areagotu zaio, eta beldur da maila ez emateagatik barre egingo ez ote dioten. Funtsean haur kanporakoia eta hedakorra bada ere, lotsa- eta uzkurtasun-ukitu bat nabaritzen hasten zaio kanpoko mundutik egiten ari den introiektzioaren ondorioz.

Haurra gai da helduen jarreran egon daitezkeen inkongruentzietan, gurasoen edo irakasleen akatsez, injustizietan eta abarrez konturatzeko, eta horrek guztiak larritasun handia eragiten dio. Gainera, aurreko etapetatik geratu zaizkion beldurrek areagotu egiten dute larritasun hori (iluntasunarekiko beldurrak, bereziki) eta, aldi berean, haurraren fantasiak beldur horiek areagotu egiten ditu.

Haurraren soziabilitatea gero eta handiagoa da, baina oraindik ezegonkor samarra da «lagun handiei» dagokienez. Ikasturtearen barruan lagunak aldatzen ditu, baina 7 urterekin baino neurri txikiagoan.

Jokoan, kanpotik ezarrita dauden arauak erantzukizun- eta justizia-zentzuarekin onartzen ditu. Horrela, jolas soziala alde batera utzi eta joko antolatuekin hasten da, horrenbestez.

Adin honetan, "haur tranpatia" gaitzetsi egiten du haurrak. Jokoan tranpak egitean kanpotik ezarrita dauden eta taldeak onartu dituen arauak hausten direnez gero, oso hutsegite larria da hori haurarentzat. Hortaz, haurra zintzo samarra dela esan dezakegu, eta «samarra» diogu, haren fantasiak haren egiak itxuraldatu egiten baititu sarritan.

Joko-arauak kanpotik ezarrita egon daitezkeela onartzen duen bezala, justizia ere kanpotik datorren arau-multzotzat hartzen du eta —bere justiziaren edo **moralaren** zentzua, oro har, bere intimitatean gauza pertsonal gisa oraindik bereganatu ez badu ere— dagozkion erantzukizunei aurre egiteko gai da dagoeneko (teorian praktikan baino gehiago). Horretan guztian oinarrituta, bere jardueren baliozko justifikazioak erraz aurkituko dituela pentsatu behar dugu. Edonola ere, ongiaren eta gaizkiaren zentzua eta egiten duenaren gaineko erantzukizuna argiago ikusten ditu.

Haurraren hizkuntza arina eta osatu samarra da, eta hitzezko ulermena zabalagoa. Orain uler ditzake hitz abstraktu batzuk, hala nola zintzotasuna, justizia eta abar. Idazkera erregularra du, eta irakurketak, gorabehera batzuekin bada ere, intonazioa du eta, zalantzarik gabe, ulergarria izan behar du.

9 URTEKO HAURRAREN EZAUGARRIAK (4. MAILA)

9 urteko haurrak Lehen Hezkuntzako 4. mailan egon behar du.

Haurraren adimen-garapenari dagokionez, adin hau Piagetek definitutako "eragiketa zehatzen" aldiko etapan barne hartuta dago oraindik, baina oso une aurreratuan. Haurrak gauzei buruz duen iritzia ez da berari komeni zaionaren araberakoa. Eskuratzen dituen ezagutzak beste ezagutza batzuk lortzeko bidea

dira, eta haurra ezagutza horien baliagarritasunaz konturatzen da. Gainera, behaketa, gogoeta, azterketa eta sintesia egiteko gaitasunak erabil ditzake erraz.

Haurraren ezagutza-bide nagusia hitza da, ahozkoa zein idatzizkoa, ulermen mailan zein adierazpen mailan. Hori dela eta, berriz ere adierazi behar dugu hizkuntza oso garrantzitsua dela haurrarentzat. Psikolinguistek eta psikologoek, oro har, behin eta berriz azpimarratzen dute adimenak hizkuntzaren garapen zuzenean eragin handia duela eta hizkuntza zuzena erabiltzeak adimenheldutasuna errazten duela. 7 urteko adinetik aurrera, itzulgarritasun-gaitasunak dakarren eta 11-12 urteko adinera arte garatzen den pentsaera logikoa hasten denean, adimen-bilakaera hori pentsatzeko edo arrazoitzeko moduan islatzen da, baina, horrez gain, badu eraginik haurraren gizarte-bizitzan eta harreman pertsonaletan.

Piagetek gai honi buruz egindako azterlanei jarraiki, itzulgarritasun-gaitasunaren erakusgarri izan daiteke, sozializazioari dagokionez, haurra besteen ikuspuntuan jar daitekeela eta haren asmoak igar ditzakeela.

Haurrak, 7 urterekin, elkar bilatzen hasten dira jolasteko, baina 9-10 urteko adinean hartzen dute esanahi osoa jokoak, taldeak eta lankidetzak. 9 urteko haur batek, noizean behin besterik ez bada ere, talde batekoa izan behar du, edota, gutxienez, lagun bat izan behar du.

Horrela ez bada, baliteke izaera- eta nortasun-arazoak izatea. Berdinen arteko adiskidetasunak, taldeak, eta jokoak eta haren arauak garatuko dute, pixkanaka, haurraren moralak. Haurra helduekin baino egoten ez bada, gizaki heteronomo eta menpeko bihurtuko da, eta ez da gai izango bere kabuz jarduteko eta bere iritzia osatzeko. Haurrak bere parekideen eta berdinen artean —eta batez ere jokoaren bitartez— eskuratzen ditu bere autonomia, independentzia eta etorkizuneko askatasun indibidualaren eta irizpidesegurtasunaren zentzua.

Jolasten ari diren haur talde batzuk arretaz behatzen baditugu, ia beti "gidari" edo "lider" bat dagoela ikusiko dugu, mutilen artean batez ere (dakigunez, adin honetan erabat bereiz egon ohi dira neskek eta mutilak, bai eta hezkuntza mistoko ikastetxeetan ere).

Haurrek heteronimia edo mendekotasuna utzi eta autonomia lortzeko egin behar duten urratsa aztertzeko, joko-arauak nola

onartzen dituzten ikus dezakegu. Aurreko etapan, 7 urterekin, arauak kanpotik ezarrita zeuden eta ukiezinak ziren (jokatzen hasi ondoren arauak ahaztu eta kontuan hartzen ez bazituzten ere). Aztergai dugun adin honetan, aldiz, arauak ez daude kanpotik baldintzatuta; alda daitezke, taldekide guztiak ados badaude.

Tranpak, gezurak eta salaketak zorrotz gaitzesten dituzte haurrek, taldearekiko desleialtasunatzat hartzen baitituzte. Batez ere, jokoan egindako tranpen aurrean dira zorrotzak, eta zelatan egoten dira berriz egin ez daitezten. Haurrak, barru-barruan, irabazteko bidezkoa zein bidegabea dena egin nahi du, baina indarra taldean dago, eta talde-kontzientziak laguntzen dio kontzientzia indibiduala lortzen.

Haur txikiek heldu baten laguntza behar dute desleialak ez izateko; 9 urteko haurrek, berriz, jolaskideengan aurkitzen dute laguntza hori. Etapa honetan, hala ere, talde-kontzientzia hausten bada aurreko jarraibideetara itzultzen dira haurrak, eta helduaren laguntzaren zain geratzen dira.

Horrela, haurrek elkarren artean jolastu nahi eta behar dute, baina horrek ez du esan nahi helduekin jolastu behar eta nahi ez dutenik. Nolanahi ere, helduek (eta

gurasoen kasuan, bereziki) ez dute saiatu behar haurraren "rola" hartzen, eurena baizik, taldekidetzat hartzeko ahaleginik egin gabe.

Etapu hau bereizteko, "introiektzio-etapa" dela esan dezakegu. 9 urteko haurra kanpoko munduak eskaintzen dion guztia

bereganatzen saiatzen da, eta bere baitara egokitzen du guztia. Ondorioz, oso komunikagarritasun eta soziabilitate zabalak ditu.

Konturatzen da gauzen balioa eta zentzua ez direla, besterik gabe, berari iruditzen zaizkionak; besteek ere beren ikuspuntua dute. 9 urteko adineko etapa (eta, oro har, 7 urtetik 11ra bitarteko etapa osoa) adin zoriontsutzat edo, psikoanaliaren arabera, "latentziaadintzat" hartu ohi bada ere, hori esatea ez da oso zehatza. Haurraren sistema neurohumoralean gertatzen ari diren aldaketan

ondorioz, hunkiberatasuna ezegonkortu egiten da. Haurrak sentimendu, tentsio eta pultsio indartsuak ditu barruan eta,

zenbaitetan, hain indartsuak direnez gero, haurrak bere buruari botatzen dio errua neurri handi batean. Hori guztia haurraren beldurretan geratzen da agerian eta, bereziki, ametsetan. Amets beldurgarriak izaten dira, mehatxuz beteak. Izan ere, Freuden teoriari jarraiki, amets orok ezkutuko eduki bat du ageriko edukiaren azpian, eta ametsetan agertzen da haurra egunez asaldatuta utzi duen baina esna dagoenean —hain aktiboa denez gero— sentitu ez duen guztia. Beraz, kontrakoa pentsatzen bada ere, adin honetako haurrak gorabehera animiko handiak izaten ditu, eta haren bizitza emozionala konplexua da, aldaketa bortitzekin. Logikoa den bezala, horrek guztiak depresio iragankorrak eragingo ditu haurraren gain. Nolanahi ere, depresioa iragankorra ez bada eta maiz agertzen bada, profesionalen laguntza eskatu beharko da, ezohiko asalduren sintoma baita.

Familiaren barruan kide garrantzitsua dela sentitzen du, eta besteek kasu egin diezaioten nahi izaten du. Hala ere, gurasoen arreta behar du oraindik, bai eta laztanak ere. Haurra sexu bereko gurasoarekin identifikatzeko unerik aproposena da, eta biekin hitz egiteko behar handia du. Gurasoak trebeak badira, haurrak arazorik gabe kontatuko ditu bere bizipenak, esperientziak, nahiak..., eta gurasoek esan nahi diotena entzuteko ere irrikaz eta adi egoten da.

Escola mundu atsegina da oraindik, eta erabat murgilduta dago mundu horretan (eremu horri beste edozein inguruneri baino

garrantzi handiagoa ematen dio). Gozatu egiten du eskuratzen dituen ezagutzekin, dena jakiteko interesa du, eta ez ditu sentitzen hurrengo ikasturteek ekarriko dizkieten erantzukizunak. Hala ere, hunkiberatasun handia eta segurtasun txikia dela eta, eskolako arazo txikiek, ikaskideen arteko ika-mikek edota irakaslearen beraren jarrerak krisialdi laburrak baina sakonak eragin ditzakete.

Haurrak horrelako gertaeren aurrean agertzen duen jarrerak gorabehera handiak izan ditzake. Gorabehera horiek

arrazionalizazioekin justifikatu nahi izaten ditu beti haurrak, baina gurasoak kezkatu eta nahastu egiten dira.

Irakaslea oso garrantzitsua da oraindik haurrarentzat, baina bere "rolerako" ez da unerik onena. Etapa hau oso lehiakorra da;

irakasleak badaki hori eta, kontzienteki edo inkontzienteki, lehiakortasun hori errendimendu hobea lortzeko sustatzen saiatzen da, baina haur bakoitzak lehiakortasunaren sustapen hori oso era ezberdinean uler dezake: batzuentzat

ekiteko eta hobetzeko akuilu izan daiteke, baina, beste batzuentzat, aldiz, kaltegarria da, eta frustrazio-iturri. Izan ere, eskatzen zaiena lortuko ez dutelakoan, eta ikastaldeko onenen artean egongo ez direla jakinik, jarrera pasiboa eta ezkorra hartzen dute.

10 URTEKO HAURRAREN EZAUGARRIAK (5. MAILA)

10 urteko haurrak Lehen Hezkuntzako 5. maila egin behar du. Bizitzako etapa bat amaitzen ari da, haurtzaroa alegia.

10 urteko adinaren ezaugarri bereizgarriak egokitzapen egokia, segurtasun lasaia eta oreka dira. Haurtzaroaren gailurra da.

Hobetzearen, eragiketa zehatzak egitearen eta orain arte lortutako funtsezko ezagutzak antolatzearen ondorio da **haurraren**

adimen-garapen egokia.

Piageten arabera, eragiketa zehatzetan lortutako hobekuntzaren ezaugarri bereizgarriak ikuspegi koordinazioa eta espazioan eta denboran ezarritako "multzo-sistema" jakin batzuk dira. 10 urteko adinean, haurraren adimen-etaparen bilakaera oso aurreratuta

badago ere, arazoibidearen alderdi batzuetan haurra egoeren ezaugarri zehatzei lotzen zaie eta, ondorioz, ez da konturatzen aplikatzen dituen legeak egitura guztietara zabal daitezkeela. Hori dela eta, hainbat eragiketa nahasten badira edo aldi berean hainbat eremu inplikatzeko badira, haurra maila prelogikora itzultzen da, datu zehatzen abstrakzioa egiteko koadro orokorra falta baitzaio.

Esaten ari garenen erakusgarri, Piagetek berak proposatutako adibide bat aipatuko dugu: itsasontziak ez dira flotatzen "hori egin behar dutelako", "oso sendoak direlako" edo "itsasoan ur asko dagoelako horiei eusteko", aurreko etapetako haurrek erantzungo luketen bezala. 10 urteko haurra gai da ulertzeko itsasontziak beren pisuaren eta hustutako likidoaren arteko erlazioagatik flotatzen direla.

Printzipio unibertsalen edo kasu guztietan aplikatzeko moduko lege orokorren kasuan, ostera, ez da gauza bera gertatzen, haurraren adimenak goragoko maila batzuetara bilakatu behar baitu oraindik.

Bilakaera etikoari dagokionez ere, aurrerapena handia izaten da. Haurrak baditu, dagoeneko, bere egin dituen uste sendo moralak.

Balio-eskala antolatuta dago bere pentsaeran, eta balioak, beretzat ez ezik, besteentzat ere badirela ulertzen du. Haurra, bere borondatez, mundu etikoan sartzen da. Bera da bere jardueraren gidari eta, beharbada, harritura utz gaitzake egin behar denaren eta egin behar ez denaren zentzua edo bere erantzukizunei aurre egiteko gaitasuna zein garatuta dituen ikusteak. Ongiaz eta gaizkiaz hitz egiten du maiz, eta gorroto du iruzurra.

Haurraren bilakaera etikoa argiago azaltzeko, Piageten esperientzietara joko dugu berriz ere. Oinarria eskolan oso arrunta den gai bat izango da, hots, ikasgaia galdetzen dioten edo azterketa bat egin behar duen ikaskideari "ezkutuan esatea" zuzen ala oker jokatzeko den adieraztea. 7-8 urteko haurrarentzat "ezkutuan esatea" gauza txarra da, helduek horixe baitiote. 9 urte ingururekin, "ezkutuan esatea" ongi ez dagoela diote, baina gehienek noizean behin egiten dutela aitortzen dute. 10 urteko adinetik aurrera, estu dagoen ikaskide bati laguntza klandestino hori emateari buruzko iritziak oso banatuta daude, eta gaia bakoitzak bere kaxa erabaki behar duen kontzientzia-kasu bihurtzen da. Beraz, haurrak moral autonomoa duela esan dezakegu, lankidetzatik sortua eta elkarren arteko errespetuan eta elkartasunean oinarritua, hain zuzen ere.

Taldea zabaldu eta koadrila bihurtzen da, eta orain arte ez zuen sendotasuna eta egonkortasuna lortzen du. Koadrilako bizitza izugarri gustatzen zaio haurrari, koadrilak jartzen dizkion arauak eta ematen dion askatasunak bere burua berresten duten heinean hain zuzen ere, nahiz eta, egiaz, pertsonak eta gauzak bere norberatasuna baino gehiago interesatu. Ezin dugu ahaztu, 9 urterekin gertatzen zitzaion bezala, orain ere introiektzio-etapa batean dagoela eta, kosta ahala kosta, bere berdinekiko elkarbizitza bilatzen duela eta bere buruari erreparatu aurretik eskaintzen zaizkion aukera guztiak kontrastatu eta aprobetxatzen dituela. Haurraren intimitateak besteengan bilatzen ditu bere kezken, jakin-minen eta iritzien erantzuna, eta bere planteamenduei egokitzen zaien erantzuna aurkitu nahi du. Horrela, beraz, haurraren soziabilitatea handitu egiten da (etapa honetan gizabanakoaren gizarte-bizitza punturik gorenera iristen dela esan dezakegu) eta, zentzugabekeria badirudi ere, intimitatea zabaltzeko aukera ematen dio horrek.

Izaki sozial eta taldekoi porrokatua ez ezik, bere originaltasun propioa izan nahi duen izakia ere bada.

Lagunak eta taldea iragankorrek izan ohi dira, eta hori lagungarria da haurraren nortasuna garatzeko, pertsona mota gehiagorekin egoteko aukera baitu. Hala ere, talde batekoa, koadrila batekoa izateko beharra du. Bere parekoen, bere berdinen, artean dago hain beharrezkoa duen indarra.

Taldearen alderdirik interesgarrienetako bat helduen kontrako jarrera da. 10 urteko haurrak haurtzaroa atzean uzten ari dela

sumatzen du, baina oraindik ez da nerabea. Ez du atsegin besteek bera haur moduan ikusterik, eta helduak, agertzearekin

hutsarekin, haurra dela gogorarazten dio, helduaren aurrean gutxiago dela sentitzen baitu. Taldearen barruan, bere adinekoekin sentitzen da bere lekuan,

ez haur ez nerabe ez den baina "norbait" baden hori: abentura-planak egiten, bihurrikeria handiagoak edo txikiagoak asmatzen, sekretu, errito eta kontsignekin...

Azpimarratu beharra dago **neska taldeak eta mutil taldeak** erabat bereiz daudela, bai eta ikastetxe mistoetan ere. 6-7 urteko adinera bitartean, haurrek axolagabetasun handia dute ikaskideekiko. 7-8 urteko adinean, bereizketa jokoan sortzen da (mutilak mutilekin, eta neskak neskekin), baina ez dute arazorik lanak elkarrekin egiteko. 9-12 urteko adinean, aldiz, kontrakotasuna erabatekoa da, eta haustura mugara heltzen da.

Fenomeno horren azalpen logikoa eman dezakegu. Izan ere, haurrak ez daude batere ziur beren maskulinitasunaz edo

femeninitasunaz, eta ez dira ausartzen beste sexukoen aurrean probatzen. Haur bakoitzak, bere taldean jolastean, bere sexunortasuna finkatzen du beste sexukoekin lehen aldiz hurbiltzen saiatzen den arte.

Bestalde, adierazi beharra dago taldearen inguruko kohesio, interes eta grina hori ez dela hain handia neskengan. Soziogrametan ikus daitekeenez, nesken taldeak ez dira mutilenak bezain antolatuta.

Mutilen taldean, oro har, koadrilaren helburuak eta izaera bera ezartzen dituen lider bat izaten da buru. Nesken artean, berriz, 4 edo 5 kideko talde txikiak eta hainbat azpitaldetan banatutako lider batzuk daude, eta barneko ika-mikak eta norgehiagokak arruntak dira.

10 urtekoentzat, inguruko helduen irudiak ospea galtzen du (hala nola gurasoenak edo irakasleenak). Irakasleak, bereziki, oso une zaila pasatu behar du; egiten dituen gauza guztiak zorrotz epaitu eta neurtuko dizkiote. Gurasoekin gauza bera gertatzen bada ere,

irakaslearen irudiak ez du gurasoen irudiaren karga afektiboa. Eta eskola oraindik oso interesgune garrantzitsua bada ere, haurraren harreman-bizitzaren oinarria lagun taldea eta familia dira.

Etxean errespetu-falta agertzen du, oihu egiten du eta lotsagabe erantzuten du, baina familiako bizitzari oso lotuta dago oraindik eta asmo ona erakusten du etxeko harmonian laguntzeko. Etxeko eremuan, taldearen hertsatzetik ihes egin dezake, eta taldean nagusi den indibidualismoaren kontrako jarreraz libre gera daiteke.

Freudek proposatutako bereizketaren arabera, adin honetako haurra latentzia-etapan edo "adin zoriontsuan" dago, baina, 9 urteko haurrei buruzko atalean adierazi bezala, horrek ez du esan nahi haurrak beldurrik, estualdirik, umore-aldaketa bortitzik, haserrealdirik edo depresiorik ez duenik gaindiezintzat hartzen dituen zereginen aurrean. Hortaz, zoriontasuna ez da dirudien bezain osoa.

Nortasun-azterketa horiek oso kezagarriak dira gurasoentzat, baina aurreikusitako mugak gainditzen ez diren heinean, tirabira horiek ezinbestekoak dira, bai eta haurrak gurasorik helduenak, ulerkorrenak eta hezkuntzan adituenak izanda ere. Haurrek kontraesanean eta gataskan dauden bulkada propioek sortutako zailtasunak dituzte, eta horri guztiari aurre egitea, azken batean, garapenerako motorra da, ez oztopo.

Itxuraz, **sexu-pultsioak** erdi-lo ditu haurrak, ez, ordea, sexuarekiko jakin-mina. Gai horretaz duen interesa ez da geroago izango duena bezain handia, baina gogoan izan behar dugu oso garrantzitsua dela sexu-hezkuntza mailakakoa eta harmoniatsua izatea, eta hezkuntza horren iturri nagusia familiak izan behar

duela. Haurrak txikitatik informazio egokia eta bidezkoa jaso badu ere (galdetzen dituen gauzen artean sexualitateari lotutako gaiak agertzen direnean ikus daiteke hori), harrituta gera gaitzke bat aldiz azaldu behar zaion ikustean. Izan ere, zail egiten zaio ulertzea eta gure ustez hain ongi azaldu genuena buruan gordetzea.

Haurrari beti erantzun behar zaio galdetzen duenean; horrela, sexuari buruzko galderak ez dira saihestuko. Haurtzaro osoan konfiantza eta informazioa ematen badiogu, gai horiek geroago sortuko dioten kezka eta estuasuna arinduko diogu.

10 urteko haurrari buruzko atala amaitzeko, haurra haurtzaroa uzten ari dela, baina, nortasunari eta soziabilitateari dagokionez, egoera orekatu samarra dela esan dezakegu. Hurbil dagoen nerabezaroa iristen denean, haurrak berriz ere dena zalantzan jarriko du, eta sakon-sakonean astinduko duen krisialdi luze batean sartuko da.

11 URTEKO HAURRAREN EZAUGARRIAK (6. MAILA)

11 urterekin, haurrak Lehen Hezkuntza amaitzen du.

Psikologoak ez dira ados jartzen 11 urteko neska-mutila haurtzaroaren amaieran dagoen ala haurra izateari utzi eta nerabegarora iristen ari den adierazteko. Gure ustez, ez da haurra, baina nerabea ere ez, ez eta aurrenerabea ere. Hori dela eta, 11 urteko adin hau haurtzaroaren eta aurrenerabegararen arteko etapatzat hartuko dugu. Izan ere, Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikaslearengan aurreko etaparen ondorioak geratzen direla eta hurrengo etaparen ezaugarriak agertzen hasten direla ikus daiteke (eraldaketa intelektual eta fisikoei zein kezka eta asaldurei dagokienez).

11 urteko haurraren **adimenak** ezagutzak metatzeko eta antolatzeko sistematikaren barruan izaera dinamikoagoa hartzen duela dirudi. Ekintza eteten du, ideiak neurtzen ditu, eta kritikoago agertzen da egiten dituen gauzekin.

«Eragiketa formalak» agertzen dira: haurra, objektuei buruz arrazoitzeko eta objektuen arteko erlazioak ezartzeko ez ezik, elkarren arteko erlazioei buruz arrazoitzeko ere gai bada. Proposizioen logika ikastaldean logikaren eta objektuekiko erlazioen gaitetik dago.

Bestalde, Piagetek dioenez, "aldi bereko bi erreferentzia-sistemen arabera arrazoitzeko eta irudikatze" gaitasuna agertzen da, "eta hori, aurrerantzean, posiblearen kasu berezi bat baino ez da izango; zehaztasun mailan, aldiz, posiblea errealaren zalantzarikozko luzapena baino ez zen". Ezagutzak eta jakintza zientifikoa sistematizatzeko abentura hasten da.

Adin honetatik aurrera, adimenaren oinarriko alderdietan gerta daitezkeen aldaketak oso txikiak dira. 4-5 urteko haur bati

aplikatutako test batzuek oso emaitza altuak eman ditzakete adimena neurtzean, baina horrek ez du esan nahi haurrak aparteko talentua izango duenik. Gerta daiteke adimena goiz garatzea eta, azkenean, ohiko gaitasunekin garatzea, edota, aitzitik, baliteke hasieran bilakaera atzeratzea eta, azkenean, egonkortzea.

Errore-marjina txikiarekin, 11 urteko haurraren oinarriko adimen-gaitasunak zein mailatan dauden iragar dezakegu. Adimena faktorizatzen hasten denean, gaitasunari lotutako ezberdintasunak ere garbiago agertzen dira eta, bitxia bada ere, haurrak ez dio bere buruari iruzur egiten gaitasunen inguruan. Gainera, badaki bere errendimendua bere gaitasun-mailarako egokia den ala ez. Hori dela eta, haurrari ez diogu mesede egiten benetakoak baino gaitasun handiagoak dituela sinestarazten badiogu (eta are okerrago, jakina, kontrakoa sinestarazten badiogu), eta merezi ez dituen laudorioak egiten badizkiogu. Gure zeregina ikasleei beren gaitasunen eta aukeren arabera laguntzea da, betiere errealitatearen barruan.

6. mailako haurrekin tentu handiz jokatu beharra dago, ez baitute onartzen, oro har, eurekin "gogor" jokatzetik. Irakaslearen irudia garrantzitsua da oraindik ere, eta, beraz, gauzak errazagoak dira irakaslea, zuzen eta tinko jokatuta ere, ikasleen gogokoa bada eta ikasleek horrela ulertzen badute. Izan ere, irakasleak ikastaldean etsaitasun- edo gaitzespen-sentimenduak eragiten baditu, haurraren **zentzu moralaren edo etikoaren** adierazpenak oso bereziak izan daitezke. Adibidez, azterlan batzuek erakutsi dutenez, haurrek azterketak kopiatzeko jarduera justifikagarritzat eta zentzuzkotzat har dezakete, irakaslearekiko harremana negatiboa bada.

Harreman hori positiboa bada, aldiz, kopiatzea zuzena ez dela iruditzen zaie; konfiantza traizionatzeko modutzat eta gainerakoekiko abantailak lortzeko ahalegin desleialtzat hartzen dute.

Moralaren bilakaeraren gaia joko-arauen ikuspegitik aztertuta ikus dezakegunez, ikaskideekin jolasten denean tranparik egingo ez dela espero du 11 urteko haurrak, arauak errespetatzea oraindik oso zaila gertatzen bazaio ere. Horrela, beraz, haurrak haserretu egiten dira arauak haustera ausartu denarekin. Gainera, haserretu denak garbi jolasteko zenbat eta zailtasun handiagoa izan, orduan eta handiagoa izango da haserrealdia.

Aztergai dugun 11 urteko haurraren eraldaketa organikoak eta fisiologikoak gertatzen dira, eta eraldaketa horiek aldaketa

psikologikoen arrazoi izan daitezke (erlatiboa behintzat): haurra fisiologikoki hazi eta berrantolatu egiten da, energia fisiko izugarria kontsumitzen du, eta berraktibatze psikomotor zabala, aberatsa eta askotarikoa izaten du. Zerbait egiten duenean, biziki egiten du, akituta geratu arte, eta haren gogo-aldarteak oso aldakorak dira, haren barruan hazkuntzaren berezko asaldurak agertzen baitira. Asaldura horiek ezezagunak dira haurrarentzat, eta sentitzen duenari buruz garrantzi eta seriotasun handia emanez gogoeta egitera bultzatzen dute. Intimitatea gustatzen zaio bere barneko bizitza sentitzeko, pentsatzeko, amets egiteko eta abar. Batez ere ohean egiten du hori, lo hartu aurretik, baina, oro har, egunez ere bai; horregatik, batzuetan arreta galdua eta ezbaian egoten da eta, helduen ikuspegitik, alferkerian dagoela dirudi.

Taldean dagoenean, haurra axolagabe, alai eta jostalari agertzen da, baina horrek ez du esan nahi bakarrik dagoenean berdin jokatzeko duenik. "Datorrenaren" zain dago, beldur handirik gabe, eta ez dago pozik oraindik denarekin. Hazkuntza fisikoko fase batean dago, eta horrek berretsi egiten du bere itxaronaldia. Bere gorputzarekiko interes handia pizten zaio, eta horrek pixkanaka sentsualizatzea dakar. Sentsualizazio hori 14 urteko adinean iristen da punturik gorenera.

Askotan, bere buruari buruzko zalantzak izaten ditu. Gutxiagotasun-sentimendu bortitzak sortzen zaizkio, eta taldearen baitan balentriak eta abenturak bilatzen ditu konpentsatzeko. Gutxiagotasun horren eta talde barruko ospea galtzeko beldurraren ondorioz, adin honetako haurrak harroputz-itxura du, baina jarrera hori desagertu egiten da etxeko giroan. Etxea babesleku ona da oraindik haurrarentzat, nahiz eta familiako ia iskanbila guztien eragilea bera izan: eztabaidazalea da, inori ez dio hitz egiten uzten, beti kontra dago, eta desafiatzailea, lotsagabea eta oihukaria da, baina afektibitatearen eta onarpenaren behar handia du, bai eta patetiko izatera iritsi arte ere, lotsatu egiten baita behar hori jendaurrean adierazterakoan.

Sarritan, etxeko abereekiko interes handia agertzen du. Afektibitatea eta samurtasuna adierazi ahal izateko modu gisa interpreta daiteke hori, sentimenduak beste era batean adieraztea "gizon-kontua" ez dela uste duten mutilen kasuan bereziki. Hainbeste maite duen etxeko aberea kontsolamendu handia izan daiteke haurraren bizitza animiko gorabeheratsuan.

Neskak -nagusiki- egunkaria idazten hasten dira, eta egunkari horrek konfiantzazko lagun sekretuaren zeregina betetzen du. Hainbat urte iraun dezake horrek. Egunkaria idaztea haztearen seinale da: haurra denboraren igarotzeaz jabetzen da eta denbora kontuan hartzeko, gertaerak norberaren historiaren zati gisa jasotzeko beharra sortzen zaio.

Adin honetan, ongi bereizitako bi haur mota ikus ditzakegu: alde batetik, nerabezaroan ohikoa den amodiozko harreman idealaren irrika indar handiz bizi dutenak edo irrika hori baztertzen saiatzen direnak (neskak batez ere, bilakaeran mutilak baino aurrerago baitoaz), eta, bestetik, haurtzaro alai eta jostalariaren azken etapei tinko eutsi nahi dietenak.

Neskek eta mutilek elkarrengandik erabat bereiz jarraitzen dute, baina sexu-gaiekiko interes bera dute; gai horiek, gainera, ohikoak dira talde barruko elkarrizketetan. Adin honetako haurrak etxean ez du sexualitateari buruzko galderarik egiten, eta interes txikiagoa duela dirudi, baina hori ez da nahikoa badakielako, lotsatu egiten delako baizik. Gainera, gero eta hurbilago sentitzen du sexua bere bizitzaren osagai bihurtuko dela.

Galderarik egiten ez badu, kezkarria izan daiteke hori, eta, kontu handiz, elkarrizketa sortzen saiatu behar dugu. Gurasoek gai horiei buruz hitz egin behar dute seme-alabekin; batez ere, komeni da mutilen kasuan gaueko poluzioei, eta nesken kasuan hilekoari buruz hitz egitea. Oso haur gutxi iristen dira adin honetan erabateko sexu-garapenera, baina gehienak horretan pentsatzen ari dira, edota gaia saihesten saiatzen dira. Seme-alabekin sexualitateari lotutako gai guztiei buruz hitz egin behar da, eta galdera guztiei erantzun behar zaie, ahal bezain zintzo. Izan ere, nahiz eta erantzunak beldurra eman edo desatsegina iruditu, egia jakitea bere teoriekin edo, are okerrago, lagunen teoriekin, larrituta uztea baino askoz ere lasaigarriagoa da haurarentzat. Kontuan izan behar dugu teoria horiek errealitatea baino askoz fantastikoagoak, nahasiagoak eta beldurgarriagoak izan ohi direla.